



Lehiaketaren oinarriak

Gaineraia

Lehiaketaren 4^a edizio honetarako, animazioek ondorengo esaldi hau erabili beharko dute erreferentzia gisa: bakea eraiki dezagun egunetik egunera.

Aurkeztutako lanek disziplina honetako edozein teknikaz eginiko animazioak izan beharko dira (marrazki, plastilina, flash, etab.).

Ez dira onartuko animazio interaktiboak.

Helburuak

Lehiaketaren helburu nagusiak hauek dira:

- **Bakearen kultura bultzatzen duten animazio digitalen sorkuntza sustatzea**, elkarte artistikoaren lotura, sustapen eta bakearen sensibilizazioarekin areagotzeko.
- **Pelikula animatuek osatzen duten fondo iraunkor bat sortzea**, [Fundació per la Pau](#)-k kudeatuko duena, bakearen kulturaren oinarriak bultzatzen dituzten pertsona eta entitateen eskuragarri.

Nork har dezake parte?

Lehiaketan nahi duen edozein pertsona fisiko eta judidikok parte har dezake.

Kategoriak

Lehiaketaren deialdiak bi modalitate izando dira:

- **Spot-a:** minutu bat baino gutxiago irauten duten animazioak.
- **Laburmetraia:** minutu bat baino gehiago irauten duten animazioak.

Gainera, bi modalitate bakoitzeko bi kategoria izango dira::

- **Junior:** 18 urtetik beherakoak
- **Senior:** 18 urtetik gorakoak

Sariak

Ondorengo sariak banatuko dira:

- Junior spot-a: 300 €
- Senior spot-a: 300 €
- Junior laburmetraiar: 600 €
- Senior laburmetraia: 600 €
- Publikoaren saria: 200 €

Lan saritu guztiak eta epaimahaiak, duten kalitatea dela eta, aukeratutako lanak, kultura eta hezkuntza esparruetan banatuko dira. Hainbat jaialdi eta lehiaketetan emanaldiak, zinemetan proiektzioak eta hainbat telebistetan emitituko dira. Gainera, **lehiaketaren web-gunean eta Fundació per la Pau-ren YouTube Kanalean eskegita** izango dira.

Hizkuntzak

Lanak edozein hizkuntzatan onartuko dira. Animazioa katalana, gaztelera edo eta ingelesa ez den hizkuntza batean egon ezkerro, testua gehitu beharko da hiru hizkuntza hauetako bat erabiliaz.

Azpitulodun artxiboa *Subrip* formatuan eta *.rst* fitxategi luzapenean egon beharko da.

Inskripzio epeak

Lanak jasotzeko azken data **2012ko maiatzaren 30a** izango da.

Inskripzioarekin amaitzeko, lehiaketaren web orrian dagoen [formularioa bete beharko da](#).

Epaimahaiaren deliberazioa 2012ko uztaila eta abuztua bitartean egingo da.

Sari banaketa Animazioaren Nazioarteko Egunaren inguruan izango da, 2012ko urriaren 28a.

Lan aurkeztea eta formatuak

Pelikulak, Videolan erreproduzitzailer libre eta multiplataforman irakurgarri den formatu batean aurkeztu beharko dira (dohan jaitsi daiteke www.videolan.org)

Lanen aurkeztea burutzeko:

1) CDa edo DVDa bidalita *Fundació per la Pau*-ra

(c/ Casp, 31, 2n 1a A – 08010 Barcelona)

Inskripzio orriaren kopia bat erantsita.

2) Lana, lehiakidearen serbidorean eskegita eta deskargatzeko esteka inskripzio formularioan jarrita.

Ez dira inundik inora onartuko posta elektronikoz bidalitako lanak.

Lizentzia eta banaketa

Bakearen kultura sustatzeko eta gizartearengan eragina indartzeko helburuak direla eta, aurkeztutako obra guztiak **Creative Commons** lizentzipean egilearen izenean eta *Fundació per la Pau-ren* menpean egongo dira, kopiak egiteko, banatzeko eta publikoki komunikatzeko baimena ematen duelarik, beti ere baldintza batzuk mantentzen. Lizentzia osoa ikusi <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/2.5/es>

Jasotako kopia guztiak *Fundació per la Pau-ren* animazio fondoan parte hartuko dute, bere mantenimendu eta erabiltzea zainduko direlarik.

Parte hartzen duten errealizadoreek bere gain hartzen dute heuren lanen egiletasuna eta konprometitzen dira eskubiderik gabeko ikus-entzunezko lan eta material fonografikoak (musika, irudi, pertsonaia, produktu, etab.) ez aurkeztera. Erakundea ez da erantzule egiten obren egileen jabetza-intelektualaren eskubideen erabilera ez egokiaz.

Epaimahaia

Epaimahaia, aldez aurretik aukeratua, izango da saria erabakiko duena, eman gabe gera daitekelarik. Aipu bereziak egon daitezke inongo diru saririk gabe.

Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

Balizkoak konpontzeko eskubidea

Erakundeak oinarri hauetan zehazten ez diren balizko kasuak konpontzeko eskubidea gordetzen du.

Oinarrien onartzea

Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du egileak oinarriok onartzen dituela.

www.fundacioperlapau.org/concurs



Fundació per la Pau